

Itziar Urretabizkaia eta Maider Yabar



- **Film bat:**
Maiden: *Cirano de Bergerac*
Itziar: *Martin Hache*
- **Aktore bat:**
Biak: Cecilia Roth, aktore argentinarra
- **Musikari bat**
Maiden: Janis Joplin
Itziar: Tom Waits
- **Zaletasun bat:**
Maiden: Bizitza
Itziar: Ondo pasatzea eta zinema
- **Zein da gazteen arazo nagusia**
Biak: Lana eta etxebizitza
- **Drogaren legalizazioa bai ala ez...**
Biak: Bai, ahalik eta azkarren.
- **Nola ikusten duzu egungo egoera politikoa...**
Maiden: Momentu delikatuak.
Itziar: Egoera itxaropentsua da, baina beldurra ere ematen du.
- **Euskal presoak euskal herrira. Bai ala ez?**
Biak: Dagoeneko hemen egon beharko lukete.

«Casting-ak penagarriak izaten dira»

Bi aktore gazte ekarri ditugu gaur gure orrialdeetara. Bata Maider Yabar 21 urteko oreretarra dugu. Bestea, berriz, Itziar Urretabizkaia 19 urteko oriotarra. Biak TAE n ibiliak dira (Taller de Artes Escenicas). Maider berriki estreinatu den *Ertzainak* telesailean ikusiko dugu. Itziar, berriz, *Maité*-n ezagutu ahal izan genuen.

ainhoa irazu

• Noiz sortu zitzaizuen antzerkia egiteko irrika?

Maiden: Ikastolan antzezlan bat egin behar genuenean beti prest nengoen. REM ikasketak egin nituen, baina nire ustez ordu gehiegi egiten genituen aulki batean eserita. Barruan nituen gauzak adierazteko beharra sentitu nuen, eta aulki batean eserita gauza gutxi adieraz daiteke.

Itziar: Ni 15 urterekin hasi nintzen. UBiko ikasketak

egin nituen, baina niretzat ikasketak bukatzea kalbario bat izan zen. Bukatzean bide hau hartzea erabaki nuen.

• Casting asko egin al dituzue lanean hasi baino lehen? Nolako trantzea da casting bat?

Itziar: Hemen casting gutxi egiten da. Edonola ere, nik ez dut esperientzia batere atsegin. Normalean oso denbora gutxi ematen dizute dakizun guztia erakusteko. Zaila da askatasun osoa emango dizun casting bat aurkitzea.

Maiden: Penagarria izaten

da. Behin, esaterako, txiste bat kontatzeko eskatu zidaten, eta txiste bat kontatuz ezin da erakutsi barruan duzuna.

• Beste aktore gazte askok ez bezala, nahiko zorte ona izan duzue. TAE n ikasketak bukatu eta berehala hasi zineten lanean, profesional mailan gainera...

Maiden: Bai, kristoren zortea izan dugu. Kontua da pertsonaia gazteak behar direla; izan ere, betiko aktoreak urteetan gora doaz.

Itziar: Zentzu horretan, uste dut gero eta jende gazte gehiago hasiko dela mundu honetan.

• Kontaiguzue zertan ari zareten orain lanean eta nolakoak diren egiten dituzuen pertsonaiak

Maiden: Ni telebistan eta antzerkian nabil orain. Tanttakaren *Aitarekin solasean* antzezlanean Leire 7 urteko nekaren rola egiten dut. Goizean esnatzen denetik bere aitarekin jolas egiteko irrika du. Gero, *Ertzainak* telesailean Minaren pertsonaia egiten dut. 18 urteko gaztea da, Bergaran jaiotakoa. Pixka bat iraultzailea da.

Itziar: Ni orain Xolak badu

lehoien berri antzezlanean ari naiz. Xolaren rola egiten dut. Txakur bat da.

• Sarritan norberarekin zerikusit gutxi duten pertsonaien larrian sartzea egokitzen zaie aktoreei. Nola egiten da hori?

Maiden: Kontua da imajinatzea pertsonaia horrek jaikitzen denetik zer egiten duen: nola jaikitzen den, nola gosaltzen duen... Baita egoera jakin batean zer egingo lukeen ere.

• Zer dauka antzerkiak telebistak ez daukanik?

Maiden: Magia.

Itziar: Bizitasun gehiago.

• Eta zer ematen dizue telebistak antzerkiak ematen ez dizuenik?

Maiden: Tomak errepikatzearena, agian. Gero alde ekonomikoa dago. Ziurtasun gehiago ematen dizu.

Itziar: Jendeak telebista ikusten du, baina hemen antzerkira joateko ohitura falta da. Beraz, telebistan lan egiteak denbora jakin batean lan egiteko aukera ematen dizu. Antzerkia ez da hain segurua. Nolanahi ere, oro har, mundu hau ez da batere prebisiblea. Agian, 6 hilabeterako lana duzu eta gero batere ez.

• Telebistan egiten diren telesailak ez al daude askotan errealtatetik oso urrun?

Itziar: Errelitatearekin lotuta daude, baina, aldi berean, batzuetan nahiko urrun ere badaude. Ikuslearen interesa lortzeko edo, ukitu tragikoa edo komikoa eman behar zaio istorioari. Gehiegikeriak ere badira.

• Zein arazo aurkituko ditu antzerkian hasi nahi duen gazte batek?

Maiden: Ikasketak garestiak dira ez baitago diru laguntzarik. Horrez gain, ia ez dago antzerkia ikasteko eskola publikorik. Lokalarena ere arazorren mailako zerbait bezala hartzen dituzte Arte eszenikoak.

Itziar: Oinarriak hartzeko aukera badago, zenbait ikas-tarotan eta abar. Hortik aurrera ez dago sakontzeko aukerarik, kanpora ateratzen ez zaren bitartean.

• Glamour-ik al du mundu honek?

Itziar: Ez dut glamourrik ezagutu. Gezur asko da mundu honetan.

Maiden: Nire ustez, mundu honi ez duena eman ohi zaio.

• Ametsik bai?

Itziar: Honetaz bizi ahal izatea. Gero, noizbait pentsatu izan dut sorkuntza lana egitea edo konpainia bat sortzea, baina zaila da.

Maiden: Lana izatea.

• Gustatuko al litzaizueke zinema-ra jauzi egitea?

Maiden: Bai, zergatik ez. Esperientzia txiki bat ere izan nuen. *Si quiero* filmean oilarako banatzailearen papera egin nuen.

Itziar: Ez dut mundu hori ezagutu. Gustura ezagutuko nuke. Antzerkia egin dut, baita telebista ere, eta zinemara aproba egin nahiko nuke.

KAFE ANTZOKIA

- THE FLESH TONES
- Paan

99/05/20 osteguna
Gaueko 22:00etan
Aurrez: 1.800 pzta. Lehiatilan: 2.000 pzta.

- MAKE UP
- Atom Rhumba

99/05/27 osteguna
Gaueko 22:00etan
Aurrez: 1.500 pzta. Lehiatilan: 1.800 pzta.

- THE DICKIES
- Caffeine

99/05/26 asteazkena
Gaueko 22:00etan
Aurrez: 1.500 pzta. Lehiatilan: 1.800 pzta.

- ALAITZ ETA MAIDER

99/05/28 ostirala
Gaueko 22:00etan
Sarrera: 500 pzta. "Lagunak" erdi prezioan